

Eraso homofobo bat izan da Iruñean

AGENTZIAK/LA HAINE :: 21/11/2024

Gazte talde batek pertsona bati irainak bota zizkioten, eta segika ibili zitzaizkion autoarekin, jarrera oldarkorren.

Sare sozialetan zabaldu duenez, eraso duela ia bi aste (azaroaren 8a, ostirala) jazo zen Iruñeako cruising eremu batean (harreman sexualak izateko topaleku publiko adostua). EHGA Nafarroa elkartearen arabera, gizonezko gazte talde bat bertaratu zen, eta han zegoen pertsona bati irainak bota zizkioten, eta segika ibili zitzaizkion autoarekin, jarrera oldarkorren.

Euskal Herriko gay eta lesbianen elkartearen arabera, "etengabeak" dira eraso homofoboak *cruising* eremuetan: ahozko erasoak, jazarpenak eta baita eraso fisikoak ere. Horien aurrean, "plazera eta espazio publikoa" aldarrikatu ditu EHGAk, eta erasoen atzean "disidentzia afektibo-sexualaren aurka" egiteko eta LGTBI+ "komunitatea bortxatzeko asmoa" dagoela salatu du. Hala, biktima guztiei elkartasuna adierazi die elkartek, "baita maitasuna, elkarrenganako laguntza eta salaketa soziala ere".

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/eraso-homofobo-bat-izan-da-1